

Mapa berria

TXILLARDEGI



DATORREN Urtarrilaren 15an, Europak mapa berria estrainatuko du; Danubio eta Mediterraneo itsasoaren artean, bi kolore desberdinetan, bi

Estatu berri agertuko dira: *Eslobenia* eta *Kroazia*. Gutxi gora-behera Euskal Herriaren izarrikoak. Heldu den udaberrian, bide beretik, Estatu askatu berri bat agertuko da Kanadako Ekialdean: *Quebec*. Oraingoan zurratzen jartzen baita abertzaleek gaina hartuko dutela Auto-Determinazioaren kontsultan.

Ez Eslobenia, ez Kroazia, eta ez Quebec, dira 'hirugarren munduko'ko parte; eta larri-kolorez, ez dira batera bezalak.

Wallonian, bestalde, Belgika Estatuoa nabarmenki flandretarren eskuetara pasa ondoren, halako berezi-nahi politikoa ere nozitzen ari da. Eta flandretarrek Holanda aldera maiz begiratzen ez badute ere, walloniarrek orain Frantzia aldera begiratzen dute; gutxieneko autonomia maila segurtatuko zaion ber.

Hemendik eta handik, hitz batez, mapak koloka daude; funtsatzen dituzten Estatuak berak ere, koloka daudelako.

Eta fenomenoa ez da gaurkoko. Europari 1900ean zegokion mapa politikoa berragitaratzea baino argigarriagorik ez legoke. Erdi-erdian, gerotik askatu diren herri askoren lekuan, "Austria-Hungria" ikusiko genuke. Eskuin aldean, beste *hamarka* herrien lekuan, "Otomandar Inperio" gaitza. Irlandaren artastorik ez; ezta Estonia, Letonia, Lituania eta Suomi (= Finlandia)renik ere. Noruega eta Suezia kolore berean (Noruega askatuak 80 urte besterik ez du). Malta askatirik ez, jakina.

Estatuak ez dira batera hilezkorrak. Euskal Herria zaharragoa da edozein Estatu baino. Eta aisa gailendu dute Austria-Hungria inperioa, beronen atal xume besterik izan ez ziren txekiarrak, eslobakiarrak, eta gainerakoak.

Euskal Herriak ere, zapaltzaileen eta saltzaileen gainetik, bere nazio-gaintasuna lortuko du. Zalantza izpirik ez dago.

Kontsumoan

LONTXO OIHARTZABAL



HARRIGARRIA ere bada! Pakean, patxadan, poz eta alaitasunean eman nahi izaten ditugu Gabonetako egun hauek.

Horretarako omen aproposak. Baina, bai zera! Hor ibili gara hau eta hura erosi beharrean, orduak eta orduak dendaurrean zutik, modu txarrean zain jarrita. Eta politikari ematen diogun astinduko ondorengo egunetan bueltatuko dizkigu zartadak.

Badirudi bestek—telebista, irratia eta egunkarien bitartez—esan behar digula zer jan eta zer edan behar dugun egun hauetan pozik ibilizko. Baita zer opari egin beharko geniokeen elkari ere oparia "onargarria" izan dadin. Eta gu, txintxo-txintxo, bi-gietatik eta belarrietatik sartu dizkiguten mezuei jarraituz, handik hona eta hemendik hura urduri eta umore itxareze! Ikusi egin behar ziren gure hiriburuetak kalebasterretako kotoxeen emanak eta turunen zaratak! Ez zirudien egun lasaietarako ataria zirenik egun hoiek!

Morrotza ederrean hartu gaitu kontsumokeriak gure ustekabeen. Ikasiko dugu—ikasiko al dugu?—pozik eta alai bizitzeko gu geure iritzi eta gustoen bidezki ibili behar dugula; dezakegunaren mugen barruan gabilguzen bihurtzean—eta ez bestek ezarritako erizien harria—ez zargula hain zaila gertatuko pozik eta alai bizitzea. Gure nihiak aurkituko ditugu jakitoki edari gustagarriak baimeste orain behar gabeko dastagaietan. Behar bada datorren Urte Berriari ikasiko dugu!

EL PAIS

Bi kapitalismoak

Egia da benetako sozialismoak porrot egin zuela Europan, baina ez da egia txikiagoa Hegoamerikan porrot egin duena benetako kapitalismoa dela. Cuba ezik, sozialismo blokeatuarekin, edo Nikaragua, iraultza erasotzarekin. Hegoamerikako herrialdeak ez dira ausartu alternatiba bat iradokitzea Estatu Batuen kapitalismo basatiari. Alegia, Berlineko harrisia erori baino askoz lehenago. Iparramerikako kapitalismoa izan da eta baita orain ere, inposatutako paradigma lurraldean nagusi den formula.

MARIO BENEDETTI

EL DIARIO VASCO

Guggenheim, San Telmo eta beste astakeriak

Eratub onartezina da, 92ko aurrekontua baino askoz harun-

HEMEROTEKA



Telebistari laster Martes y Trece agertuko direla ezan nahi du horrek. FORGES / EL MUNDO

izango doan milioi anitzeko erabakia, Euskal Herriko politika kulturalaren gainean losa bat bezain astuna izango dena urte askotan, beharizan kultural nagusiei buruzko azterketa serioa egin gabe hartzea.

Oinarritzko azpiegitura kulturalaren berragitaratzea eta atzeratzea sakrifikatu eta eguneratzea, modernotasun eta unibertsalitasun itxura eman nahi izateko, arrazioa eta zentzuaren aurka eraso larria da.

JOSE MARIA UNSAIN AZPIROZ

Diario 16

Handitu egin da gure mesfidantza

Gaur egun Felipe Gonzalezek egingiza diferentziala onartu zuelarik urtebetera, zentzu horretan ezer ez egiteaz gain, Maastrichteko gaularriari buruzko debaten udalerrien alde atera zen, autonomien kaltetan, ordezkaritza espainiara osatzeko garaian Erregioen Batzordean. (...)

LUZENDARIARI

Kanpaina lotsagarria benetan:

Beste herrietan ez dakit nola egingo zen "Euskara gazteena" delako kanpaina, baina Soraluzen egin den bezala egin bada, benetan kanpaina lotsagarria eta inolaz ere ez Euskararen mesederako, gutziz alderantziz baizik.

Gehiago zirudien zaharrei zuzendutakoa zela, gazteei baino, ez noski, kanpaina honek ez du inolako bultzadarak izango Euskararen zabalakundean gazteen artean.

Lehenengoz eta behin gaurtzak argi eta garbi utzi nahi ditut. Kanpaina honen "arima" Kultura Batzordeko Zinegotzia den Orbea Jauna izan dugu, berak bakarrik egin duena, zer egin behar den eta zer ez erabakiaz, alegia, egin beharkeko gauzak bere iritzikoak edota ildo politikotik joanez gero, ondo, bestela ja! hots, zentzuratzaile moduan jokatu du, ekintza batzuk kenduz eta besteak ipiniz, lekutan dago adierazpen askatasuna. Horra hor inkisidore berriak, karguen bat dutela eta berearekin boterea eta jada uste dute eskubidea dutela egin zedin desegiteko, hura bada Jaingo berriak.

Udaletxean Euskara Batzordeak ez badago, zergatik

egitarautan edo programetan antolatuazile bezala Euskara Batzordea agertu, itxura denez, Euskara Batzordea bakarrik Orbea Jauna da, benetan ulertutako bihurtu zai-gu herrian Euskararen inguruan gabilguzen zutitzi.

Gutziz baztertu gaitu eta barre egin digu urteetan Euskararen mundutxoan ibili garenik, hala nola, AEK, Herri Eskola, Ikastola, Urakapin, e.a. Hauxe bai dela popatik ematea. Zorionak Orbea Jauna.

Nire uste apalean kanpaina honek beste bide bat hartu beharko luke, hitz batean esanda, baina bara magikoarekin adierazita dago dena, hots, kanpaina partizipatiboa behar luke izan eta zentzuzkoa den bezala, gasterriari zuzenduta dagoenez gero, protagonismoa beraien eskutan utzi, inolako benereizketarik egin gabe Euskararen inguruan zer esateko asko daukaten indar guztiak parte hartuz, beste dena ipuin izango da A.H.V.? Bai, ez! ezin dogu hau onartu eta honen erri guztia gobernu zentralak dauka. Beidanik espainolen politika honetan baliatu da: «DIVIDE A LOS VASCOS Y VENCERAS».

Eta gure arloan tentelele zuzen ari gara... Horregaitik eskatzen dautsiet alderdi abertzaleari lotu gaitzen eta behingoz hartu dugun gure burujabetasuna.

Iziz dagiguzan kontuak eta euzkaldun arteko gorrotoak eta lan egin dagigun abertzagaitik eta ez alderdiagaitik.

Dank bat burujabetasunaren alde! JON UGUTZ EZKURDIA

Aita Barandiaran

Marathoia, Euskal Herriaren hamabost mila urte-takoa/ Zain dago aita Barandiaran/ nor hartuko dion lekukoa.

Ehun eta bat beretik ditut/ eta itxaroten dago zutik. Herri-historiko marat-hoian/ lekukoa eskuan duela/ stadiumeko marraren gainean/ Barandiaran amas estuka.

Frantsesak, espainolak zein bertze/ erderek atzean dute utzi/ Zahar dirudiela diote/ gero On Jose Mielek ehunekin.

Ezkerretik pasatzen zaikio/ zein eskuinetik gaurko gaitzak/ Beherantz doazkie eskuak/ Hain goian ezin eustako dion.

Ehun eta bat beretik ditut/ eta itxaroten dago zutik. Hogeita hamar urte badira/ hasi zirela gaitzak pasatzen/ Iñakiak doaz erdaraz./ Dagokien txanda ez dute hartzen.

Makuruz doa Atlasen gertia/ Ba da lekukoa belandean/ Kopa iserdi: begnik urrun/ Nor zara ordezko gasteria?

Euskal Herriaren marat-hoian/ On Jose Miel Barandiaranek/ ehun eta bat ditut beretik/ eta itxaroten dago...

JUAN LUIS GOIKOETXEA Sara (Lapurdi)

Gaur egun asko hitz egiten da, baina ez da ezer egin. Gure mesfidantza handituz doa eta Gobernu planteamenduen aurrean dugun sinesgaitasunak bide ematen digu penitazeko, ministro izan nahi duen pertsona jakin baten nahiak daudela bakar bakarrik eta ez ezer seriorik.

JAVIER TUSELL

LE FIGARO

Europa alemana?

Zoritxarez, Alemaniak ukatu egin die bere interes tasei (Parise gauza bera egitera behartu zuen atzo) eta jende guztiaren aurrean bi errepublikan onartzeko erabakia onartu du. Non geratu da, bada, Maastrichteko Europa, moneta eta diplomazia arazoetarako armonizazioa antolatzen antolatzen zueña? (...)

John Majorrek urduri jartzen du Europako Komunitatea, bakarrik geratu: Helmut Kohl artegare jarri liteke bakarrik geratu. Europak Maastrichten ez zela Europa alemana erabaki zuen.

THIERRY DESJARDINS

Ataungo preso, errefuxiatu eta deportatuak

Agur Joxe Migel, agur aita Barandiaran.

Zure azkenaren berri izan dugu.

Benetan gogorra egin zaigu eta gure sentimenduetan eragin handi negarrez gaude euzkaltzale handi bat galdu dugulako.

Guk bezela, herri zahar honen alde lan asko egin duzu, eta gu bezela herri honen alde lan egiteagatik erbeste-egon behar izan zenuen urte askotan.

Behin baino gehiagotan aitortu duzu, zure herriaren gaitzak, eta erbesteetik berri zure Aitauk kultura itzuli zinen.

Zuk hasi zenuen bide bera jarraitzeko gure esku dagoen guztia egingo dugula jakin ezazu, ordea.

Zuk mamitu nahi zenuen Euskal Herriaren urreak mamitzen saiaturko gara, zure amak esan ohi zuen bezala geroz eta zuhaitz kargatuago eta orduan eta apaia.

Agur Joxe Migel, Agur Aita Barandiaran.

JOXE GOIKOETXEA ETA BESTE BOST

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gereontea: INMA GOMILA
Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZHEN ETXEZAHARRETA, INAKI URUA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK
Egoutza soziala, Puzitza eta Administrazioa: Anso Jakituna, 16-1, 20.010 Donostia / ☎ 46.90.22 / Faxa: 45.59.57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilluak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37.15.45 / Faxa: 36.54.93
Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23.38.72 / Faxa: 23.38.73
Nafarroa: Iruñe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñe dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17.80.78/79 / Faxa: 17.80.77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423.90.62 / Faxa: 423.94.60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59.59.35.75 / Faxa: 59.25.75.11



Batzorde Parekidura: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90